



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, MAYUMI-IRUN JUDO KLUBAREN LEHENDAKARI [REDACTED] JAUNAK GIPUZKOAKO JUDO ETA ELKARTUTAKO KIROLN FEDERAZIOAREN HAUTESKUNDE-BATZORDEAK 2016ko IRAILAREN 28an HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA EZESTEN DUENA**

---

Exp. nº 30/2016

**AURREKARIAK**

**Lehena.-** Mayumi-Irun Judo Klubaren lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko urriaren 28an hartutako erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsoa sartu zen Kirol Justiziako Euskal Batzordean (aurrerantzean, batzordea) 2016ko urriaren 28an. Hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiaren bitartez, ezetsi egin zen aipatutako klubak aurkeztutako errekurtsoa, klub hori klubaren eta kirol-elkarteen estamentuaren eroldan ez sartzeari buruzkoa.

**Bigarrena.-** Kirol Justiziako Euskal Batzordeak adierazitako errekurtsoa izapidetzea eta, beraz, espedientea eskatu eta Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioari entzunaldia ematea erabaki zuen.

**Hirugarrena.-** Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-batzordeak batzorde honek bidalitako errekerimenduari erantzun zion, eta hauteskunde-prozesuari buruzko informazioa eta alegazio-idazkia, 2016ko azaroaren 14koa, bidali zituen.

Errekurtsu hau Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen hauteskunde-prozesuaren zuzenbidearekin bat etortzeari dagokionez jarritako errekurtsu multzo baten zati denez (22/2016, 25/2016, 26/2016, 28/2016 eta 30/2016



zenbakietako espedienteak), eta hauteskunde-batzordearen alegazioen idazkiak errekurtsio horietan azaltzen ziren gai guztiei erantzuten ez zionez, batzordeak bi aldiz eskatu dio hauteskunde-organo horri (2016ko azaroaren 22an eta 28an jakinarazitako idazkiak) aipatutako espedienteen errekurtsioei buruzko informazio osa zezala, eta errekerimendu horiei erantzun zaie 2016ko azaroaren 23an eta 29an aurkeztutako idazkien bitartez.

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena.**- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.b) artikulua eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.b) artikulua eskumena aitortzen diote organo honi «*kirol-federazioen hauteskunde-batzordeen erabakien aurka jarritako errekurtsioak aztertzeko eta ebazteko*»,

**Bigarrena.**- Errekurtsogileak, Mayumi-Irun Judo Klubaren izenean eta hura ordezkatzuz, bere errekurtsio-idazkian adierazi du ez dagoela ados hauteskunde-batzordeak hartutako erabakiarekin, hau da, klub hori klubaren eta kirol-elkarteen estamentuaren erroldan ez sartzeari buruzko erabakiarekin. Erabaki hori 2016ko irailaren 28ko erabakiaren bitartez hartu zen.

Erabaki hori justifikatzeko, hauteskunde-batzordeak adierazi zuen errekurtsioa jarri duen klubak ez zuela betetzen lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 32.a) artikuluan eskatzen den baldintza; izan ere, 2015. urtean ez zuen kirol-jarduera garrantzitsurik izan federazioaren eremuan.

Arestian adierazi dugunez, errekurtsogilea ez dator bat arrazonamendu horrekin, eta, horri dagokionez, argudiatu du 2015. urtean eta 2016. urtean bete zuela lizentzia kopuruari dagokionez eskatzen den baldintza eta ordainketa guztiak egin dizkiola lurralde-federazioari, eta, gainera, 2015. urtean garatutako



kirol-jarduera «*oso nabarmena izan dela*», eta honako jarduera hauetan parte hartu duela adierazi du:

- Donostiako Nazioarteko Stage jardueran parte hartu du. Jarduera hori Donostiako Judo Klubak antolatu du Gipuzkoako Teknikazio Zentroan, Anoetan.
- Durangoko “Judo en Femenino” izeneko Stagean parte hartu du. Jarduera horretan nazioarteko irakasleak izan ziren, baita 2016ko Rioko Olinpiadetako parte-hartzailereren bat ere.
- Judo Terapeutikoa eman du Gipuzkoako Hezkuntza Terapeutikoko Lurralde Zentroan, 2015. urteaz geroztik ezarrita daukaten eta gaur egun ere jarraitzen duen proiektu baten barnean.
- Emakumeen defentsa pertsonalerako ikastaro asko garatu ditu, parte-hartzaile kopurua handia izanik, kirol-alorrean berdintasuna sustatzeko.
- Judoa udalerrian eta Gipuzkoan sustatu du parte hartzeko topaketak eta ekitaldiak antolatuz.
- Hezteko eta hedatzeko jarduera handia egin du eskoletan eta partaidetza-maila handia izan da.

Azkenik, esan behar da errekurtsioan adierazten dela hauteskunde-batzordearen erabakia 2016-10-03an jakinarazi zitzaion arren, jakinarazpen horretan ez zela zehazten zer epe zegoen aipatutako erabaki horren aurka jar zitekeen errekurtsorako.

**Hirugarrena**- Hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 28an egindako bilkuraren akta –zeinetan Mayumi-Irún Judo Klubak jarritako errekurtsioa ebatzi baitzen– (hauteskunde-espediterearen 37. folioa) aztertu ondoren, ikusten da akta horretan ez dela adierazten erabaki horren aurkako errekurtsioa jar daitekeenik, ezta errekurtsioa jartzeko zer epe dagoen eta zer organotan jarri behar den ere.



Horregatik, nahiz eta errekurtsua kide anitzeko organo honetan jarri den, hasiera batean, hauteskunde-araudian ezarritako epetik kanpo (errekurtsua 7 egun balioduneko epean jarri behar da hauteskunde-arautegiaren 26. artikulua araberan), batzorde honek aztertu egingo du errekurtsua eta errekurtsuaren mamiari buruzko erabakia hartuko du.

Kluben eta kirol-taldeen estamentua ordezkatzuz, batzar nagusiko kide izateko, eta, beraz, estamentu horretako erroldako kide izateko baldintzak lurralde-federazioaren hauteskunde-arautegiaren 32. artikuluan zehazten dira. Artikulu horretan honako hau ezartzen da:

*«Kluben eta kirol-elkarteen estamentuak 20 ordezkari izango ditu eta ordezkari horiek batzar nagusian eta Kirol Elkarteen eta Federazioen Erregistroan inskribatuta egongo dira; horrez gain, azken hamabi hilabeteetan kirol-jarduera garrantzitsuren bat egin izan beharko dute eta lurralde-federazioari atxikita egongo dira. Ulertzen da jardueraren bat egin dutela honako kasu hauetan:*

*a) Federazioaren jardueraren batean parte hartu izana.*

*b) Lizentzia indarrean duen kirolari bat gutxienez edukitzea hauteskundeak egiten diren urtean eta lizentzia hori aurreko urtean ere indarrean eduki duena.*

*Hamabi hilabeteko denbora-eskakizuna betetzat jotzeko, nahitaezkoa izango da hauteskunde-batzordeak hauteskundeetarako deialdia egiten duen egunaren aurreko seihileko bakoitzean kirol-jarduerak garatu izana».*



Beraz, bi baldintza eskatzen dira klubuen eta kirol-jardueren estamentuaren erroldako partaide izateko: 1) denbora-tarte jakin batean lizentzia kopuru bat eduki izana (gutxienez 1); hauteskunde-batzordeak ez du eztabaidatu errekurtsua jarri duen klubak baldintza hori betetzen ote duen; eta 2) kirol-jarduera garrantzitsuren bat egin izana azken 12 hilabeteetan. Hauteskunde-arautegiaren 32.a) artikuluan zehazten da jarduera horrek honako hau eskatzen duela: «*Federazioaren edozein jardueratan parte hartu izana*».

Hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 28an hartutako erabakian agerian jarri duenez, –eta ondorengo alegazio-idazkian berretsi duenez–, «*2015. urtean egindako proba guztiak biltzen dituzten federazio-artxiboak aztertu ondoren, egiaztatu da klub horrek ez duela federazioaren proba bakar batean eta kirol-jarduera bakar batean ere parte hartu*».

Eta gai horri dagokionez, arrazoia eman behar zaio hauteskunde-batzordeari; izan ere, klub errekurtsogileak argudiatutako kirol-jarduerak aztertzen baditugu –bide batez esan behar dugu 2015. urtean Donostiako Judo Klubeko Teknifikazio Zentroan egindako Stagea eta 2015-2016 ikasturtean, Gipuzkoako Lagundutako Terapien Elkartearekin eta Gipuzkoako Hezkuntza Unitate Terapeutikoko profesionalen taldearekin batera emandako Judo Terapeutikoa soilik egiaztatu direla, eta errekurtsuan argudiatutako gainerako jardueri buruz ez dela ziurtagiririk aurkeztu–, ondorioztatu behar da errekurtsuan aipatzen diren jarduera guztiak federazioaren eremutik kanpo egin direla.

Beraz, egia da ez dela hauteskunde-arautegiaren 32.a) artikuluan eskatzen den baldintza betetzen; horregatik, hauteskunde-batzordeak Mayumi-Irún Judo Kluba klubuen eta kirol-elkarteen estamentuaren erroldan ez sartzeko hartutako erabakia bat dator zuzenbidearekin eta ezetsi egin behar da errekurtsua.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

## **ERABAKI DU**

Mayumi-Irun Judo Klubaren lehendakari [REDACTED] jaunak Gipuzkoako Judo eta Elkartutako Kirolen Federazioaren hauteskunde-batzordeak 2016ko irailaren 28an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsua ezestea.

Erabaki honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, bere aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioarekiko auzi-errekurtsua Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, halaxe xedatzen du-eta Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abenduaren 16a.

**JOSE LUIS AGUIRRE ARRATIBEL**

Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea